



AMAIA BILBAO
Aixerrota BHI, 14-15

AURKIBIDEA

<i>Karmele Jaio</i>	2
<i>Sarrera</i>	3
<i>Amaren Eskuak</i>	4
<i>Kokapena</i>	4
<i>Gaia</i>	5
<i>Argumentua</i>	5
<i>Gertakizun Nagusiak</i>	6
<i>Egituraketa</i>	7
<i>Pertsonaiak</i>	8
<i>Baliabideak</i>	9
<i>Iritzia</i>	10
<i>Bibliografia eta Webgrafia</i>	11

Karmele Jaio



Karmele Jaio Eiguren Gazteizen (Araba) jaio zen 1970eko martxoaren 19an. EHUUn Informazio zientzietan lizentziatu eta gero, kazetari lana bete du hainbat idatzizko komunikabidetan; hala nola, Euskaldunon Egunkarian edo **Garan**. Beste egunkari batzuetarako ere iritzi zutabeak idatzi ditu; Diario de Noticias de Álavan edo Deian, esate baterako. Horretaz gain, idazle ere jarduten du.

Lehenengo agitaratu zuen liburua *Hamabost zauri* ipuin bilduma izan zen 2004an. Urte berean 2006an argitaratutako *Amaren eskuak* liburuarekin Igartza Saria irabazi zuen. Gainera, liburu

horrek beste hainbat sari irabazi zituen: **Zilarrezko Euskadi Saria**, Zazpi Kale Saria eta Beterriko Liburu Saria. Liburu horrek lortutako arrakasta ikusita, Jaio berak gaztelaniarako itzulpena egin zuen *Las manos de mi madre* izenburupean eta Tartalo argitaletxearekin. Hori gutxi balitz, Miren Gabilondok zuzendutako zinemako bertsioa atera zuten, 2013ko Donostiako Zinemaldian estrenatu zena.

Bere hurrengo lanetan, eleberriak eta ipuinak tartekatu ditu. Hori horrela 2007an *Zu bezain ahul* ipuin bilduma kaleratu zuen eta 2009an *Musika airean* eleberria.

SARRERA

Liburu honek Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak antolaturiko VII. Igartza saria idazle gazteentzako bekaren irabazlea jaso zuen 2004an.

Elkar da argitaletxea eta 2006ko otsailean Donostian argitaratu zen. 8. argitalpena 2008ko martxoan egin zen.

Nerea 35-40 urte inguruko emakumea da eta ama erietxean dauka. Egoera horretan, amak bizitzan zehar ezkutuan mantendu dituen hainbat gertaerez jabetuko da, eta konturatuko da noraino izan daitezkeen ezezagunak alboan ditugunak, baita zeinen berdinak diren belaunaldi desberdinetako emakumeen kezkak eta arazoak, nahiz eta garaiak eta bizimoduak asko aldatu.

Bizitzeko grinaren eredutzat har genezake eleberri hau; izan ere, egora latz batzuen aurrean indarra eta kemena izan behar direla adierazten digu.

KOKAPENA

Garai historikoari dagokionez, ez du datu zehatzik ematen, baina egiten dituen aipamenengatik, frankismo osteko urteetan ematen da, ETAREN jarduera pil-pilean zegoenean. Alde batetik, frankismo garaia aipatzen da Nerea (protagonista) gaztetan, jatetxean zegoela, irratian Francori hitz egiten entzun ziotenean. Beste alde batetik, ETAREN jarduera zeharka aipatzen da; izan ere, istorioko protagonistetako bat etakidea da. Horretaz gain, istorioko momentu batean Nerea bere gelara sartzean nuklearren argazkiaz oroitzen da, berak gaztetan gelan itsatsita baitzuen; beraz, esan daiteke Lemoizko nuklearra kentzeko protestak gauzatu zituzten garairen ostean kokatzen dela istorio hau.

Istoria kokatzen den lekuari dagokionez, Euskal Herriko hiri batean gertatzen da, baina iraganeko egoerak gogoratzen direnean, Euskal Herriko kostaldeko herri bati egiten dio aipamena, Oxford hiririari eta Alemaniari.

GAIA

Amaren egoera aitzakiatzat hartuta, Nerearen eta amaren bizitzetako paralelismoak agertzen dira, hala nola amodio galdua, zorionaren bilaketa etengabea...

ARGUMENTUA

Nereak ama ospitalean zuen, noiz esnatuko zen jakin ezinik. Hori eta egunkarian zuen lan estresatua zela eta, gauean oso berandu heltzen zena etxera, eta ez zien bere senarra eta alabari behar besteko arreta eskaintzen. Ama ospitalean zegoen bitartean, bere iraganeko gertaera ezkutuatik ezagutu zituen, eta konturatu zen, zeinen ezezagunak izan zitezkeen ondoan ditugun pertsonak. Amak iraganean bizi izandako gertaerei esker konturatu zen zenbaterainoko antza izan zezaketen belaunaldi desberdinetako emakumeen kezkek.

Ama erietxean zegoen bitartean, bere ahizpa Dolores heldu zen Alemaniatik, ama zaintzeak suposatzen zuen lanarekin laguntzeko, eta nolabaiteko babesa emateko Nereari; izan ere, Dolores zen ama ondoen ezagutzen zuen pertsona. Bitartean, Nereak Karlosen berri izan zuen; hau, Nerearen mutil lagun ohia zen eta hamabost urte ziren ikusi ez zuela. Karlos, Nereak espero zuen unerik txarrean azaldu zen, izan ere, estresaturik zebilen eta ez zeukan arazo gehiagori aurre egiteko betarik. Egoera horren aurrean, Nereak Maiteren babesa (Nerearen lagun mina) eta laguntza izan zuen. Denborak aurrera egin ahala, Nerearen ama, Luisa hitz egiten hasi zen, Farora joan nahi zuela esanez; izan ere, Luisak faroa gaztetako amodio galduarekin lotzen zuen. Azkenean, Nereak eta Doloresek medikuen esanari kasurik egin gabe, ama farora eramatea erabaki zuten, amari on egingo ziolakoan.

GERTAKIZUN NAGUSIAK

Nerea kalean zihoala, bat-batean telefonoak jo zuen. Bere neba telefonoaren bestaldean zegoen, beraien ama ezezagun batzuek kalean galduta aurkitu zutela esanez. Berria jakin bezain laster, Nerea ospitalera joan zen urduri, amari zer gertatzen zitzaien jakin gabe. Erietxera heldu zenean, ama ohean etzanda lo aurkitu zuen eta urduritasuna sentitu zuen. Han geratu zen berandura arte ama zaintzen. Gauean, etxera heldu zenean, bere alaba Maialen lo aurkitu zuen eta bere senarra Lewis jadanik ohean. Momentu horretan konturatu zen, behar baino denbora gutxiago eskaintzen ziela senarrari eta alabari, eta zer egingo lukeen bere senarrak etxetik kanpo lan egingo balu.

Nereak senarra Oxforden ezagutu zuen Maiterekin bi urte igarotzera joan zenean. Nereak, Oxfordera joan baino lehen, Karlos izeneko mutil laguna zuen. Karlos bat-batean bere mundutik desagertu zen, aireak eramanez izan balu bezala. Horrek sortu zion etsipena zela eta, Oxfordera joatea erabaki zuen bere adiskide Maiterekin; eta handik mutil lagun berriarekin itzuli zen.

Urte batzuk geroago, berarekin Maialen izeneko alaba izan zuen. Halako batean, ama zaintzera joan zenean, Pilar gelakidearen familiako kide batek, Pilik, Luisak gauean *German* hitza esan zuela jakinarazi zion Nereari. Nerea harrিতuta geratu zen berri hori entzutean, Luisak egun asko zeramatzalako txintik esan gabe eta berak inoiz entzun gabeko izen bat aipatu zuelako, guztiz ezezaguna egiten zitzaiena.

Amarekin gertatu zitzaionarekin batera, egunkarian oso lanpetuta zegoen, eta estresatuta zebilen. Egoerak sortutako larritasuna zela eta, bere izeko Doloresi deitu eta gertatutakoa kontatu zion. Doloresek gertatutakoaren berri jakitean, berehala hegaldi bat hartu eta ilobarengana joan zen. Dolores ahizpa bisitatzera joan zenean, Luisak ezagutu egin zuen eta hori seinale ona izan zen, esan nahi zuelako bere gaixotasuna ez zegoela hasierako egoera txarrean.

Geroago, Luisak Nereari hitz egin zion farora joan nahi zuela esanez. Hitz hau ere Nereari ezezagun egiten zitzaien eta izeko Doloresi galdetzea erabaki zuen. Doloresek, Luisak German gaztetan izandako mutil-lagun bat izan zela esan zion. Luisa Germanek itsasoan igarotzen zuen garaian beti farora joaten zen berari loreak botatzera, horrek zorte ona emango ziolakoan. Baina behin, bere izeko Bittorik zigortu zuen Luisa eta ezin izan zen farora joan loreak botatzera itsasora. Germanek itsasoan hilabeteak igaro ostean, ezezagun aurkitu zuen Luisak; harrezkero, German ez zen

gehiago itsasora itzuli eta Luisak handik aurrera erabaki zuen ez zela farora itzuliko, itsasoak German lapurtu ziolako. Geroago, euren arteko harremana eten egin zen.

Nerea sinetsi ezinik zebilen, bere amari buruzko zenbat gauza ez zekien konturatu baitzen. Egun batzuk geroago, gutxien espero zuen berri bat jaso zuen. Maitek deitu zion, Karlos hiritik zebilela esateko. Berri horrek Nerea ezustean harrapatu zuen; izan ere, 15 urte inguru igaro ziren Karlos azken aldiz ikusi zuenetik. Berri horrek kezka, intriga, urduritasuna, emozioa...eta bestelako sentimenduak sorrarazi zizkion Nereari.

Bitartean, Dolores eta Nerea ama farora eraman ala ez pentsatzen ari ziren; nahiz eta medikuak ezezkoa eman zien. Egun batzuk geroago, Maitek deitu zion Nereari Karlosekin taberna batean topo egin zuela esanez eta ea zer esan behar zion Karlosi Nereaz galdetzen bazion. Nereak laster elkar ikusiko zutela esateko esan zion eta elkarrizketa bukatutzat eman zuten.

Egun batzuetan buruari bueltak eman ostean, Doloresek eta Nereak ama farora eramatea erabaki zuten, nahiz eta bere neba Xabierrek ideia zoroa zela esan zien. Erabakia hartuta eta Plliren laguntzarekin, erietxetik inork ezer ez susmatzeko moduan irten ziren igande eguzkitsu batean eta amak eskatutako nahia bete zuten.

EGITURAKETA

Istoria, linealki kontatuta dago, kronologikoki ordenatuta baitago. Hala ere, esan beharra dago, une batzuetan iraganera jotzen duela; adibidez amari erietxean erakustan dizkion argazkietako uneak gogorarazten ditu eta garai hartan konturatzen ez zen gauzez konturatzen da; horrez gain, bizitzen ari diren egoera horrek iraganean egindako gauza batzuez oroitzen eramaten du Nerea, bere gaztetako garaira. Amaitzeko, bere amaren gaztetako uneak ere gogoratuak izaten dira; jatetxean igarotako uneak; edota Germanekin izandako harremana.

PERTSONAIAK

Nerea. istorioko protagonista da. Emakume gaztea da 35-40 urte inguru ditu. Alaba zoragarria eta senar jator bat dauka, zeinei ez dien behar besteko denborarik eskaintzen. Hamar urte baino gehiago daramatzen egunkarian lanean, eta ordutik sail guztietatik igaroa zen.

Luisa. Nerearen ama da. Ospitalean dago eta noizbehinka hitz egiten du. Bere bizitzan zehar emakume kementsua izan da; izan ere, nahiz eta txarto pasatu duen adorea erakutsi du, berak bakarrik aurre eginez bizi izandako egoera latzei. Ile luzea dauka, iluna. Nerea eduki zuenean, erditze konplikatuak izan zuten.

Dolores. Luisaren ahizpa da. Alemanian bizi da bere senarra eta alabarekin. Bere ahizparekin harreman estua du; nahiz eta, elkarrengandik urrun bizi. Bere ahizpa bisitatzera doan bakoitzean maleta berarekin joaten da. Begi beltz distiratsuak ditu.

Maite. Nerearen lagun mina da. Nahiz eta lanaren ondorioz gutxitan ikusten diren, edozertarako elkarren alboan daude eta bata bestearen arazoak berri izaten dute.

Lewis. Nerearen senarra da, Oxfordekoa. Nereak eta berak elkarrekin ingelesez hitz egiten dute, horrela ohitu direlako, baina Nereak konbentzitututa euskaltegi batean hasi da euskara ikasten. Itzulpenak egiten ibiltzen da egun guztia etxean pasatuz, alaba zaintzen.

Karlos. Nereak gaztetan izandako mutil laguna da. ETAko kidea izateagatik bat-batean desagertu dena, abisurik eman gabe eta 15 urte ezkutuan ibilitakoa.

Xabier. Nerearen neba da. Gaztetan praka bakeroak suizidatu egiten zituen, baina orain, nagusitan trajearekin jantzita dabil lana dela eta. Nerea eta bera gutxitan ikusten dira lan kontuengatik.

Maialen. Nerea eta Lewisen alaba da. Gaztea da, ikastolan ikasten dabil.

Fidel. egunkariko erredaktore burua da. Erredaktore buru izendatu zutenetik, arnasa sakon hartu ondoren botako ez balu bezala, burua goian, bekainak altxatuta ibiltzen da. Ezin hobeto egokitu da garaiko kazetaritzaren legeetara.

Pilar. Ospitalean ezagututako emakumea da. Nahiz eta hasiera batean emakume astuna iruditu eta bere hitzek gutxi balio dutela uste izan, geroago harreman estua izatera heltzen dira, Nerea eta bera eta Pilik botatzen dituen hitzek zeresan handia daukatela iruditzen zaio Nereari.

Bittori. Luisa eta Doloresen izeko da. Mototsa eraman ohi du. Bera Izagirre jatetxeko sukaldean gidari eta arduraduna izandakoa da. Gaztetan, Bilboko handiki-etxean neskame ibilitakoa da. Luisak eta Doloresek sukaldeko filosofoa deitzen zioten, asko gustatzen zitzaion bizitzaren gorabeheretz hitz egin eta *Hamaika ikusteko jaiok gara gero!* esaldiarekin bukatzea.

German. Luisak gaztetan izandako mutil laguna da. Luisak gaztetan lan egiten zuen jatetxean ezagutu zuten elkar. German Urkiolamendi itsasontzian marinel ibilitakoa da, baina egun batetik bestera itsasoari beldurra hartu zion eta bere jarrera aldaketagatik Luisak eta Germanek euren arteko harremana hautsi zuten.

BALIABIDEAK

Liburu honetan hainbat baliabide estilistiko erabiltzen dira:

- Narratzaile bakarra dago, orojakilea. Pertsonaiei buruz dena daki; sentitzen dutena, pentsatzen dutena...
- Elkarrizketa ugari agertzen dira.
- Hizkuntzen konbinazioa ageri da, euskarazko eta ingelesezko hitzak erabiliz; *impossible job, like english men...*

IRITZIA

Izenburuari dagokionez, esan beharra dago liburua irakurtzen hasi baino lehen, suposatzen nuela amak paper garrantzitsua beteko zuela istorioan zehar; eta horrela izan da. Ama (Luisa) istorioaren oinarri da eta bertatik abiatuz hainbat istorio elkarlotuta ageri dira. Izeburuari lotuta, ama erietxean dagoen bitartean, amaren eskuak etengabe agertzen dira; batzuetan Nerearen kokotsa altxarazten, eta momentu horretan Nereak amarenganako babesa sentitzen du, horrela irudikatzen baitu berak babesa; edota bere soinean agertzen den ospitale hitza ezabatzen, bere ingurukoak kezkatu nahi ez balitu bezala.

Idazleari dagokionez, ezaguna egin zait; nahiz eta hau izan den irakurri dudana bere lehenengo liburua. Istorioa irakurtzean nabari da idazlea emakumea dela emakumeen sentimenduak azaltzeko duen moduagatik.

Alde batetik, hiztegiari dagokionez, ulertzeko erraza da. Gainera, egunerokoan edo bahintzat ezagunak egiten zaizkigun hainbat esapide erabiltzen ditu: “Hamaika ikusteko jaioak gara gero!”... Bestalde, Ingalaterrako egunkari batzuk aipatzen ditu: *Wall Street Journal* edota *Washington Post*.

Liburuak euskarari eta garai horretako politikari zeharka egiten dio erreferentzia; Nereak Lewis konbentzitzen baitu euskara ikastera, eta Nereak bere buruari zalantza egiten baitio, Lewisek inoiz ulertuko duen berarentzat hizkuntzak ze garrantzi handia duen, baita hizkuntzaren alde egin diren eta egiten diren ahaleginak; izan ere, ingelesa mundu osoan hitz egiten den hizkuntza da.

Horretaz gain, liburua asko gustatu zait eta azkar heldu diot ariari. Gehien erakarri nauena, Nerea eta Karlosen harremana izan da. Hori dela eta, ez zait gustatu liburua zelan amaitu den; izan ere, Karlosek eta Nereak azkenean ez dute beraien harremanari eta bizitzari buruz hitz egiteko elkarrizketa bat izan; eta ni horren zain egon naiz istorioan. Beraz, nik istorioak beste amaiera bat izango zuela espero nuen.

Gainera, istorioak emozionatu egin nau; adibidez Nereak Karlos agurtu zuen unean; izan ere, Nereak ohiko egunetan bezala agurtu zuen, ez baitzekien hortik aurrera, urte ugari igaroko zirela berari buruz ezer ere jakin gabe; eta urteen poderioz momentu horretan gertatuko zena jakingo balu bere atzetik joango zela eta ez ziola alde egiten utziko esaten duenean.

Erakarri nauen liburuaren beste atal bat da kontatzen den istorioak hausnarketa bat egitera bultzatzen duela irakurlea. Askotan, pertsonak ez dute azaleratzen barruan gordetzen duten tristura eta zeinen gogorra izan behar den egoera horri bakarrik aurre egitea. Hau horrela, ohartzen zara bizitzako momentu oro ahalik eta gehien aprobetxatu behar direla, bestela konturatzen zarenerako beranduegi izan daitekeelako. Honi erreferentzia egiten dio, Nereak eta Doloresek Luisaz urte batzuk lehenago gehiago kezkatu eta Luisak momentuan behar zuen babesaren eman ez izanaz damutzen diren momentuetan; izan ere, orain Luisa ospitalean dago eta ez da guztiz kontziente gertatzen denaz.

BIBLIOGRAFIA

- *Amaren eskuak*. Karmele Jaio. Elkar

WEBGRAFIA

- http://eu.wikipedia.org/wiki/Karmele_Jaio
- <https://www.google.es/search?q=Karmele+Jaio&tbm=isch&tbid=0CDUQsAQ&biw=1366&bih=667>
- <http://blogak.donostiakultura.com/liburu-dantza/es/2012/04/24/amaren-eskuak-karmele-jaio/>
- http://www.elkarargitaletxea.com/liburuak/default.cfm?atala=artikulua_ikusi&hizkuntza=3&id_produktua=G81.01258